

## BARANDIARANGO JOSE MIGEL, IKERTALDEEN SORTZAILE

Jesús Altuna

Orain dela urtebete eta hemen bertan, Eusko Ikaskuntzako Biltzar Nagusia zela ta, Euskal Herriko Prehistori alorrean egin diren azterketen laburpen bat azaldu nuen. Laburpen hori argitaratu berria duzue. Han ikus dezakezue zer izan den D. Jose Migel Barandiaran gure Herriko Prehistori ikerketan. Ez noa ba berriro han esandakoak aipatzea.

Oraingo hontan, beste alde bat adierazi nahi nizueke: D. Jose Migelek ikertaldeen sortzaile bezala, egin duen lana.

Beste batean nion bezala, Euskal Herriko gizon ospetsu batek, behin baino gehiagotan esan izan du, Barandiarango Jose Migel, bere ikerlanetan, gizon bakarti bat izan dela. Ez duela jakin, gerorako, ikertzaile talde bat osatzen. Ez dela maixua izan, alegia. Eta hau, berarekin eramango duen huts edo akats larri bat dela. Batetik, bere lanak, etenda geldituko direlako, eta bestetik, azterlari batek bakarrik lan egiteak, arrixku haundiak sortzen dituelako, bere azterketaren esan nahia adierazteko.

Gauza hauek esan ziren une hartan, arrazoi haundiak balin banituen iritzi hori bazartzeko, gaur gehiago ditut. Nere iritzia zeharo bestelakoa da. Hara hor, lekuko, Etniker-taldeak. Bainan nik Prehistoriari buruz bakarrik jardungo dut.

D. Jose Migel, Euskal Prehistoria alorrean, 1916.go tutean hasi zitzaigun. Eta lan hauetan azaltzen zaigun urte berean, T. Aranzadirekin elkartzten da, E. Egurenekin batera. Horrelaxe sortu zen, hain beste aldiz aipatua izan den, Aranzadi - Barandiaran - Eguren hirukotea. Horrela eraiki zen, Euskal Prehistori ikerketaren ardatza. Hogei urte luzeetan, guda arte, hirukote honi esker, exkabazio ta azterketa multzo ederrak egin ziren.

Garai hartatik ezagutzen ditugu Santimamiñe, Lumentxa, Urtiaga eta Ermittiako aztarnategiak. Baita ere Aralar, Altzania, Aizkorri, Ataun-Burunda eta Urbasako jentilarriak, beste askoren artean.

Atzerrira egindako ibilaldirik nagusienak ere, Aranzadirekin, egin zituen, elkarrekin lan eginaz. Honela 1922.go urtean Paris, Kolonia, Munich, Leipzig eta Berlingo museotan, eta 5 urte geroago Ginebra, Luzerna, Zürich, Innsbruck eta Vienakoetan.

Bide hau hasi ta hogei urtera, gure Herrian hain beste eginkizun, eta haien artean azterketa hauek ere eten zituen guda sortu zen. Eta D. José Migel, 17 urte luzeetan Hego aldeko Euskal Herria utzi beharrean, gertatu zen. Lapurdi aukeratu zuen bere bizi-tokitzat, eta bere lana, Ipar aldean jarraitu zuen. Aldi hortan ordea, Etnografiari gehiago heldu zion, Prehistoriari baino. Hala ta guztiz ere, bere babesean hasi zituzten Prehistori azterketak G. Laplace eta P. Boucher-ek.

Bitartean, Eusko Ikaskuntza barruan egiten ari ziren lan bikainen pusketak sakabanatuak biltzeko ahaleginak egin ziren hemen, Eragozpen askorekin eta Elkarte honek zaitzen zituen zatietako batzuei bakarrik begiratuaz, 1947 tutean Aranzadi Elkarteak sortu zen.

Hasiera hartan, Elkarte honek etzuen aztertzaile edo espezialistarik bere Prehistori taldean. Bainan hortarako giroa sortzen jakin zuen, eta giro horren epelera bildu zen, Prehistori zale mordoxka bat, etorri zitezkeen maixuren batekin lanean hasteko prest.

Handik 6 urtera bihurtu zen D. Jose Migel Ataunera, Bainan orain ere, ez azterketa bakartian izkutatzeko, aipatutako Elkarte berri hortan burubelarri sartzeko baizik.

Berehalaxe hasi zituen, berriro, haitzuloko ikerlanak eta, horrela, bi helburu bete ziren batera. Alde batetik, 20 urte lehenago utzitako azterketei, jarraipena eman. Eta bestetik, kobazulo haietako atariak, Unibertsitate bihurturik, talde berri bat sortu. Hain zuzen ere, garai hartan Unibersitatean ikasten ari ginen gazte batzuek, D. Jose Migel ezagutzean, eta berarek zuzenduta, Euskal Prehistori zati batzuetara jo bait genuen, gure espezializazioa aukeratzean. Urteetan zehar, eta exkabazio ugarietan lagundu diogu Maixu haundi honi, eta bidenabar, Unibersitateko aukietan ikasi ahal izan ez genuena, hemen ikasi ahal izan genuen. Beragandik zetorren bideratzea ez bait zetorren utsirik, ondo jantzia baizik, jardunbide edo ikasketa batez jantzirik. Eta jardunbide ta metodologi bide haiek, Prehistoriarekin lotuak dauden Zientzi guztitan, erabili zitezkeen.

Zientzi ikuspidetik, D. Jose Migelen babesean hartu dugun heldutasuna, sarizgainezko dugu. Unibersitateko ikastaro gehienetan hartu dugunagandik, guztiz desberdina, alegia. Tamalez, ez dira bizpahiru irakasle bakarrik, izkutuan gordetzen duten liburutxo batetik irakasten dutenak. D. Jose Migel berriz, hasiera hasieratik uzten zigun bere egunkaria, azterketen egunkaria, alegia. Bi jokabide hauen artean, neurrigabeko aldea zegoen. Alde haundiegia, erraz ahaztutzeko.

Beste alde batetik berriz, agerketak jasotzeko garaian ikusten genuen zehaztasuna, bere analisisen zorrozatasuna, eta azterketa osoaren deitasuna izan ziren, gure gogo ta kemena ikerketarako girotu ta bizkortu zituztenak.

Era hortan, guretako bakoitzak, bere espezialitatea aukeratu ondoren, zati zehatz eta mugatuagoa aukeratu genuen, antzinean baino sakonago aztertuz. Honi esker, lan sakon asko argitaratu da Euskal Herriko Prehistori alorrean, azken urte hauetan.

Lagun berri hauek, hortarako gauza izatera iritxi zirenean, beren kontura hasi ziren lanean. Ez baita izan D. Jose Migel, berak bakarrik dakiela

uste duen hoietako bat, edo jauntxokeriz jarduten duen, edo bere ikasle izan direnak gora dihoaztela ikusteak min ematen dion hoietako bat. Oso bestaldera baino.

Horrela, azterketak ugaritu egin dira. Aurtengo udaran bertan egin diren exkabazio batzuk bakarrik aipatzeko, Arabako La Hoyan, Bizkaiko Arenazan, Gipuzkoako Amaldan eta Nafarroako Berroberrian egin dira. Azterketa guzti hauen zuzendariak, D. Jose Migelekin garai hartan hasi ginenok, izan gara.

Azterketak ugaritu egin dira, bai, bainan aztertzaile guztiak Arkeoikuska deritzan Elkarteetan, D. Jose Migelen zuzendaritzapean jarraitzen dugu, lan koordinatu batean. Arkeoikuska Elkarrekin osatu du, batez ere, Eusko Ikaskuntzako Arkeologi taldea.

Orain, aztertzaile hauek ere, bere aldetik, Arkeologi espezialitate berrietarako, lagun berriak biltzen ari dira. Esan diteke beraz, Euskal Herrian azterketa hauen etorkizuna, argi dagoela.

Orain dela gutxi, D. Jose Migeleri buruz argitaratutako liburu batean esaten da, D. Jose Migel faltatzen zaigunean, bide asko, itxita geratuko direla. Ez nator ni bat, iritzi honekin. Alderantziz, berak bide asko jorratu duelako, bide hoietan ibiltzen, berari esker, ikasi dugulako, eta are gehiago bide berriak irekitzen erakutsi digulako, bide asko geratuko dira irekiak.

Eta hau dena, ez D. Jose Migelen lan bakartiari, baizik eta, lan elkarrekin esker. Ezin esan ba inolaz ere, gizon bakarti bat izan dela, ez duela gerorako ikertzaile talde bat osatzen jakin, hitz batean, ez dela benetako Maixua izan. Gezurra.

Jakina, bakarrik ere gauza bat baino gehiago egin du. Nola ez? Hoieta-ko bat, Ipar aldetik Ataunera etorri berri hartan. Egun batean, bere ilobeekin Arantzazura erromes ziohalarik, Urbiatik igarotzean, ilobak atsedean artzeko gelditu ziren, baina ez D. Jose Migel. Hau Artzanburuko jantilarrira igo zen, eta berak 35 urte lehenago utzi bezelaxe aurkitu ornen zuen. Nola ez gogoratu bere lagun eta adiskide Aranzadi ta Eguren? Antxen bada, berak behin batean esan zidanez, otoitz egin ornen zuen, bakarrik eta bakartasun zabal hartan, bere adiskide min izan zituen haien alde.

Bainan, bakardade hartan ere, ez zegoen bakarrik. Ikusten dakigunentzako, bizi bait dira oraindik, Aranzadi ta Eguren.

## D. JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN, CREADOR DE EQUIPOS DE INVESTIGACION

Como hace poco más de un año, en este mismo lugar hice una exposición historiográfica de las investigaciones prehistóricas y arqueológicas en el País Vasco y esta exposición ha sido recientemente publicada por la Sociedad de Estudios Vascos, en ella podrá ver quien lo desee lo que ha supuesto D. José Miguel de Barandiarán al desarrollo de estas investigaciones. Por esta razón, no he querido volver a repetir, de nuevo, lo allí indicado.

He preferido, por el contrario, fijarme en otro aspecto, tratado con gran ligereza y con verdadera ignorancia “elenchi”, como dirían los escolásticos, en más de una ocasión.

En efecto, más de una vez una persona muy cualificada de nuestro pueblo ha repetido que D. José Miguel ha sido un investigador solitario, que no ha tenido discípulos, que no ha sabido hacer escuela, que no ha sido un verdadero Maestro, ya que sus investigaciones quedarán cortadas con él, sin continuidad.

Otros podrán rebatir estos equivocados asertos en el campo de la Etnografía. La refutación es bien sencilla. Basta que cualquiera que estéis integrados en los grupos Etniker, y en activo, claro está, empuñéis el bolígrafo durante unos minutos.

Yo me limitaré al campo de la Investigación Prehistórica.

Es curioso, que el mismo año en que D. José Miguel salta a la palestra de la Investigación Arqueológica, en 1916, aparece ya unido a D. Telesforo de Aranzadi y a D. Enrique de Eguren. Naturalmente comenzó solo, allá en Jentilbaratza, porque fuera del caso más o menos excepcional de los partos múltiples, uno nace solo. Pero le bastaron unos pocos meses, para integrarse en el equipo. Y fue este equipo el que trabajó sin cesar durante 20 años, hasta aquella desastrosa guerra, que cortó éstos, como tantos otros trabajos, que venían realizándose en el país.

Luego el destierro. Pero aunque en esta época se dedicó más a la Etnografía que a la Prehistoria, con él se formaron en las prácticas de campo P.

Boucher y G. Laplace, que siguen trabajando en la parte septentrional del país.

En este tiempo, aquí con grandes dificultades, se intentaba recoger, algo al menos, de los mil pedazos en que quedó la Sociedad de Estudios Vascos, tras la guerra. Uno de estos intentos, dirigido a una parcela de las diversas atendidas por esta Sociedad, fue el de la creación de la Sociedad de Ciencias Aranzadi. Aunque esta Sociedad no contaba con especialistas en Prehistoria y Arqueología en aquella época, preparó el camino y el ambiente para que el regreso de D. José Miguel fuera fecundo.

Este a su regreso no se enterró en Ataun. Pasaba largas temporadas en San Sebastián ordenando y siglando los materiales de las excavaciones efectuadas en Guipúzcoa, durante los años de la preguerra. Es ahí donde nos acercamos algunos jóvenes que cursábamos estudios universitarios por aquel entonces.

Y se reanudaron las excavaciones arqueológicas, las cuales cumplieron un doble cometido:

1. Por un lado, reemprender la investigación abandonada.
2. Por otro, formar un equipo de jóvenes investigadores, para atender mejor a estos estudios en el futuro. Nosotros volvimos a revivir aquello que cuenta D. Julio Caro Baroja en ese precioso libro de memorias familiares, "Los Baroja": "que en una cueva Paleolítica Vasca y de boca de un sacerdote católico vasco salía más materia universitaria que de las aulas madrileñas".

Aparte de enseñarnos a caminar en los métodos arqueológicos para la investigación de nuestro más remoto pasado, nos mostró las lagunas existentes en nuestra investigación arqueológica y nos fue orientando hacia diversas especialidades.

Una vez formados, pudimos emprender nuestras propias investigaciones. Frente a aquella única excavación dirigida por D. José Miguel en un punto del País, hoy pueden hacerse media docena de excavaciones al mismo tiempo. Por citar solamente el ejemplo de este verano y una única excavación por provincia, se ha trabajado en el poblado alavés de La Hoya, en la cueva vizcaina de Arenaza, en la guipuzcoana de Amalda y en la navarra de Berroberría. Los directores de todas estas campañas han sido aquellos jóvenes que se formaron a la vera de D. José Miguel, al comienzo de los años 60.

Además, al atender cada uno de ellos a una parcela más concreta de la investigación arqueológica, bien en el tiempo, bien la materia, los estudios de ogaño pueden ser más profundos y precisos que los de antaño.

Esta madurez, lejos de suponer el desmembramiento del equipo, ha conducido a una estrecha colaboración, ya que la especialización exige ineludiblemente la colaboración, tanto más, cuanto que la Prehistoria se ha hecho hoy una Ciencia interdisciplinar, que requiere el encuentro de personas procedentes de muy diversos campos, tanto humanistas como científicos. Por ello, entre otras cosas, surgió el Instituto de Investigaciones Aranzadi, bajo la dirección de D. José Miguel, transformado hoy en Arkeo-ikuska.

Por otro lado los equipos que funcionan en las diversas regiones del País, van engrosando sus filas con nuevos miembros, que irán abarcando nuevas especialidades. Todo ello hace que el futuro de las investigaciones arqueológicas en el país esté plenamente asegurado, desde el punto de vista del capital humano. Harina de otro costal es el capital a secas, si bien empieza a sentirse realmente una brisa aliviadora en este aspecto, que sin duda alguna tomará fuerza en el futuro. De todas formas, el capital principal es el humano, ya que sin él nada se puede hacer, mientras que sin dinero se ha hecho gran parte de lo que se ha hecho.

Creo que está claro que D. José Miguel supo integrarse en un equipo y que ha sabido formar equipos, que aseguran la continuidad de sus trabajos. Es una deuda más de las muchas que le debemos.